

...eta

Kitto!

861 zkio.
2013-X-4

Sagardo Egunaren bezperan

bihar goiz
TXOTX!!!
eta arratsaldez



ZURE ENTZUMENA
AZTERTZEAN

OPARI

ENTZUMEN
GIDA

ENTZUMEN-OSASUN EZIN HOBEAZ GOZATZEA
USTE DUZUNA BAINO ERRAZAGOA DA.

GAESen ENTZUMENA DOAN
aztertuko dizugu.

www.gaes.es

 **GAES**
Entzumen Zentroak





RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

- **Iribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Aseguruekin
IMO, ADESLAS, SANTA LUCIA,
FRATERNIDAD...
egiten dugulan
KONTSULTATU!

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: **08.00-22.00** / Larunbatetan: **10.00-14.00**

A

TZERA BEGIRA, AURRERA EGITEKO

euskaldunon iraganaz eta etorkizunaz

Urriak 9, asteazkena:

Baga, biga, higa hitzaldi-kontzertua,
euskal musikaren historia ezagutzeko.

Elgoibarko Musika Eskolako auditorioan, 19:00etan



Eñaut Elorrieta Mikel Markez

Urriak 16, asteazkena:

XXI. mendeko euskaldunak: nola aldatu(ko)
diren gauzak, kamarada! hitzaldia
Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan

Urriak 23, asteazkena:

Atzera begira, aurrera egiteko solasaldia
Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan

Antolatzaileak:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA 1963-2013



ASTEAN ESANAK

"Ez dut nahi bizirik jarraitzea naizenaren arrastoa izatera mugatuta. Gizakiak hiltzeko eskubidea du existentzia duina izatearen itzaropena galtzen duenean. Nire parkinson-ak horrela jarraitzekotan, lagundutako suizidiora joko dut ziurrenik"

(HANS KÜNG, TEOLOGOA)

"Amerika Far West-eko sehaska bihurtu da berriro. Berdin dio Obama "sheriffa" demokratikoki aukeratu duten. Herrialdea ez da itxi, baina ia. Diru barik, munduko zerbitzu enpresa handienak euren etxeetara bidali ditu 800.000 enplegatuek. Tea Partyko errepublikanoak katua erraz erabiltzen dute"

(JOSE LUIS PEÑALVA, EKONOMILARIA)

"Espainiako langileek ordu gehiegi ematen dituzte lanean, eta produktibitate txikia dute. OCDEren arabera, Espainian langileek 1.653 ordu lan egin zuten 2009an; alemaniarrek 1.389; hau da, haiek baino %19 gutxiago"

(JON FERNANDEZ, EKONOMIA KAZETARIA)

"Elizaren buruak, narzistikak izateaz gain, goraipatuak izan dira askotan euren gortesauengatik. Gorte hori aitasantutzaren legenarra edo lepra delako. Ikuspuntu batikanozentriko hori baztertu behar dugu"

(FRANTZISKO, AITA SANTUA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

JOTEN.- Ondoan, alboan. "Elixia joten dago ospittala".

JOTEN DABENAK JOTEN DABELA.- Edozer gertatzen dela ere. "Joten dabena jotzen dabela, ni banoia hamendik".

eskutitzak

AURRERA!!

Aurrera!!

Eskubideak gizakiak berezkoak dituen ezaugarriak direlako, ez direlako ematen ezta negoziatzen ere, Euskal preso politikoaren eskubideak errespetatuak izan daitezken, ni ere **Herrira** naiz.

JUANTXO ARANBURU (HERRIRAKO KIDEA)

Euskal preso eta iheslari politikoak maite ditugulako eta sekula ere bakarrik utziko ez ditugulako, ni ere **Herrira** naiz.

JOL IGARTUA (HERRIRAKO KIDEA)

Estatuen bortizkeri politiko-juridikoak gure herriaren

bake eta askatasunaren esperantza ezingo duelako ezabatu, ni ere **Herrira** naiz.

IXIDRO GABIRONDO (HERRIRAKO KIDEA)

Arrazoi politikoengatik pertsona bat bera ere, preso edo ihes eginda dagoen bitartean nire zati bat ere gati-bu dagoelako, ni ere **Herrira** naiz.

MARIANO LUKE (HERRIRAKO KIDEA)

Estatu Espainola zein Frantzesia zenbat eta gorragoak izan, askatasunaren oihua orduan eta ozenago entzungo delako, ni ere **Herrira** naiz.

AINARA LADRON (HERRIRAKO KIDEA)

EUSKADI INTERNETEN DOMEINUA GABE GELDITU DA

2012ko urtarrilaren 12tik apirilera arte ICANNek, Interneteko domeinua kudeatzen duen korporazioak, lehenengo mailako domeinu berriak (marka, hiri edo herrialdeko izenekin) erregistratzeko epea ireki zuen. Erreserbatzeak 185.000 dolar eta urtero 25.000 dolarreko ordainketa suposatzen zuen.

Guztira 1.900 eskaera baino gehiago erregistratu ziren: izen generikoak (.book, .music, .news), markak (.seat, .bbva, .xbox, .godaddy, .bmw, eta abar) edo gune geografikoak (.barcelona, .bcn, .catalonia, .madrid, .paris, .roma, .etab.). Zerrenda osoa hurrengo helbidean ikusi daiteke: <https://gtl-dresult.icann.org/application-result/applicationstatus/viewstatus>

2013ko irailaren 6an ICANNek hurrengo domeinuak onartu zituen: .barcelona eta .bcn (Bartzelonako Udalak kudeatuko du. Lehenengoak erabilera publikoa izango du eta bigarrenak barne erabilera), .catalonia (Kataluniarren Generalitateak kudeatuko du) eta .madrid (Madrilgo Erkidegoak kudeatuko du), besteak beste.

Eusko Jaurlaritza berriro berandu heldu da. Euskadi Interneteko mapan ipintzeko .euskadi edo .basque goi mailako domeinuak erregistratzeko aukera zuen eta ez du egin. Bilboko Udalarekin eta .bilbao domeinuarekin berdin gertatu da.

Berriro berandu heldu dela esaten dut 1996ko otsailaren 17an erabiltzaile batek euskadi.com domeinua erregistratu zuelako eta Eusko Jaurlaritzak euskadi.net domeinuarekin konformatu behar izan zuelako, 1996ko apirilaren 19an erregistratuz.

Zorionez, PuntuEus elkarteak -Iratxe Esnaola buru- .eus domeinua lortu zuen. 2014ko apiriletik aurrera euskal kultura eta hizkuntzarekin edukiak dituzten web-guneak egiteko erabili ahal izango dugu. Bitartean bilbotarrak, bizkaitarrak eta euskaldunak bereak egiten jarraituko dituzte .bi (Burundiko domeinua), .biz (negozioen domeinua, business) eta .eu (Europako domeinua) domeinuak.

AITOR LOPEZ DE ABERASTURI



Euskara Elkarteak

ARGITARRAZILEA: ...eta kितto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONORAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Mainer Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Mainer Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kितto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
("...eta kितto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

Bizikletia, herrixan mugitzeko onena

Ingurumen sailleko ziñegotziak lasterketia egiñ eben aurreko asteko barixakuan, Mugikortasunaren Astiaren barruan. Untzagan hasi eta Azitaiñeraiño jua ziran lasterketako parte-hartzailliak, baiña bakotzak ibilbidia betetzeko garraio mota bat erabillitta. Asmua herri barruan batetik bestera ibiltzeko garraiorik aproposena zein dan agerixan lagatzia zan eta, horretarako, bakotzak bihar izan eban den-

poria neurtu eben: Igor Aldalurrek (Bildu) bizikletan 5 miñutu eta 10 segundo emon zittuan; Carmen Larrañagak (PP) autobusez, 11 miñutu eta 11 segundo; Eneko Anduezak (PSE-EE) automobillez, 13 miñutu eta 17 segundo; eta Eva Juezek (EAJ-PNV) oiñez, 20 miñutu eta 18 segundo. Gauzak holan, herri barruan mugitzeko garraio biderik azkarrena bizikletia dala laga eben agerixan datuak.



Mugikortasunari lotutakua beste batzuetan baiño tarte haundixagua bete eben aurreko astian eta, testuinguru horretan, Udalak aurreko astian esleitutako mugikortasun planak "gure herriko bost puntu beltzeri egoki erantz-

teko" eskatu eben Eibarko Bilduko ordezkariak. Aittutako puntuak bidegorriak, autobus geltoki barrixa, oiñezkuendako toki gehixago prestatzia, parking disuasorixua eta garraio publikua hobetzia dira.



Gaztetxuenak ondo baiño hobeto pasatu zeben auzoko jaixetan. LEIRE ITURBE

Primerako girua Wenzeslao Orbean

Amafia auzuan dagan Wenzeslao Orbea kalekuak zapatuan ospatu zittuen San Wenzeslao jaixak. Goizerako antolatu zittuen umiendako jokuak eta Ernesto eta Hodei Ezpeleta aizkolarixen erakustaldixak arrakasta haundixa euki eben eta herri bazkari-xan 120 lagun batu ziran. Jaixak arratsaldian segidu eban, txokolate-jana eta pintxo-potia tartian, eta DJ Arnok eskindutako musika saiuarekin agurtu eben programia, datorren urtera arte.



Elena Garcia Cruz erdixan, Dendarien Elkarteko ordezkari-xekin.

Dendarixen 1.000 euroko sarixa banatuta

Eibarko Dendarien Elkarteak hillero bezeruen artian egitten daben zozketan Elena Garcia Cruz-ek eruan dau irailleko sarixa, 1.000 euroko balixua dakan erosketa-txekia. Irabazlia (argazkixan erdixan) Romualdo Galdos kalia dagan Ibone Estetikan eskuratu eban zozketarako txartela eta sarixa estetika zentruko Ibonek eta Jordanak emon zetsen iraillaren 26xan.

Plan Estrategikuaren premiñia ikusten dau EAJ-k

Eibarrek 2014. urtian Plan Estrategiko barrixa eukiko dabela gobernu taldiaren ahotik jakin dabe EAJ-ko ordezkari-xak eta "albiste pozgarri-xa dala" pentsatzen daben arren, plana "atzerapen haundixarekin" aillegauko dala kritikau dabe. EAJ-k gaur egun dagan plana, 1998kua "zaharkittuta" daguala pentsatzen dau eta, krisi ekonomikua tartian dagan honetan, etorkizuneko erronkeri modu egokixan erantzuteko moduko plan estrategikua premiñia-premiñazkua dala ikusten dabe.



Lau atxilotu domekan agertu zan gizonaren heriotzarengaitik

Ertzaintzak lau gizon atxilotu dittu, domekan Apalategin hilda agertu zan 28 urteko gaztiaren heriotzarekin zerikusia dakelakuan. Hildakua etxetik falta salatu eben Eibarko ertzaintxian irailaren 22xan eta, domekan mendixan agertutako gorpuari autopsia egiñ eta gero, heriotza eskopeta-tiruak eragin-dakua ondorioztatu eben.

Holan, aurrez atxilotutako hiru gizoneri laugarren bat gehitu zetsen erahilketa eurak egi-ttiaren susmuarekin. Izan be, gorpua agertu zan tokitik 500 bat metrora daguan basarrixan



drogaren kontrako operaziñua egiñ eben bari-xakuan eta, hari horri tiraka, droga trafikua-rengaitik atxilotuta eguzen basarriko jabieri eta beste bi laguneri egotzi detse heriotza.

Ezkontza azokia asteburuan

Bixar eta etzi Ezkontza Azokia egongo da martxan Armerixa Eskolan, ezkontzeko asmua daken bikotiak bihar daben guztia toki bakarrian aurkeztu eta eskintzeko. Esparru diferentietako denda eta zerbitzuak euren produktuak ezagutzera emotiaz gain, egun bixetarako jar-



duerak antolatu dittue: bixar 16.00etatik aurrera mariatxixak jardungo dau, estetizista batek emaztegaixarendako zuzeneko saiua eskinduko dau, pintxuak eta ardaudastaketia preparau dabe eta 20.00etan desfilia egingo dabe modeluak. Domekan 11.00etan hasiko dira jarduera berezixak (ekitaldixen ordutegixa 24. orrixan, agendan).

autuan

HERRIRA

Astelehenian Herriraren kontra egindako operaziñuaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dira alkartasuna adierazi eta atxilotutakuak askatzeko eskatzeko. Gaur 19.30xetan alkartasun ekitaldixa egingo da Untzagan. Eta bixar (zapatua) Bilbon 17.30xetan Casillan hasiko dan manifestaziñora juateko autobusak antolatu dittue. 16.00etan Ego Gaiñetik urtengo dira eta izena emoteko Depor, Karrika, Kultu eta Buenos Aires tabernetara juan bihar da.



KANPOSATUKO ORDUTEGIXA

Urria hastiarekin batera, udazken-neguko ordutegixa sartu da indarrian kanposantuan. Zerbitzuetako arduradunak jakiñarazi dabenez, aurrerantzian 10.00etatik 13.30xetara zabalduko dabe goizez eta arratsaldez, barriz, 14.30xetatik 18.00etara.

AUTOBUS zerbitzua

URRIAK 20

IRTEERA: Ego-Gaiñetik 08.00etan

14 eurotan

BUELTA: 18.30etan

TAUPADAZ BAT EGIN! TUTERA

NAFARROA OINEZ '13

J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

MUGICA FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea
- Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

asteko
14.632
datua

lagunek ikusi dabe pelikularen bat Coliseoan aurten, urtarilletik ekaifera bittartian. Proiektzio bakoetako batz bestekua 36 lagunetakua da eta iazko emankizun kopurua azken urtiotako altuena izan zan, 875 danera.



Bihotz biriken suspertzerako

Gipuzkoako DYA-k Bihotz biriken suspertzia eta kanpoko desfibrilagailu automatikuak zelan erabili ikasteko klasiak emongo dittu Eibarko ordezkartizan (Pagaegi, 5ian), urriaren 21ian eta 22xan (18.30etatik 21.00etara). Matrikuliak 80 euro balixo dau. eta izena emoteko interneten DYA-ren webgunera jo leike edo, bestela, 943464622 telefono zenbakira deittu.

Errebaleko etorkizuna zihazten

Eguaztenian ekin zetsen Portalean Errebalen inguruko parte-hartzeko prozesuaren 3. fasiari: arratsaldero proposamenak egitteko taillarrak egin dittue Errebalerako behin-betiko diseinua definitzeko asmoz eta horretarako oiñarrixa uztailian egindako diagnostiko taillarretatik urtendakuak izan dira.




Parte-hartziaren 3. fasia hasiko da oiñ.

Parkia tapatzeko biharren "gatxena" eginda

Txaltxa Zelaiko parkia estaltzeko biharrek martxa onian doiaz eta, aste honetan alkatetzatik aditzera emon dabenez, "biharren parterik gatxena amaittu dabe". Soldadura-biharrek amaittuta, estrukturia margotzen dabiz egunotan eta dana oiñ arteko moduan badoia, abendurako obria amaittuta egongo dala pentsatzen dabe.



Sukaldia bakarrik erre zan Isasiko etxian, baiña keiak larrittu zeban jendia.



Sei lagun Mendarora keia arnastiagaittik

Aurreko barixakuan Isasiko etxe batian sua piztu zan eta berez bakarrik sukaldia erre bazan be, sortu zan keiak sei lagunereri eragin zetsen eta, bertara juandako larrialdi zerbitzuak arreta eskinduta be, Mendaroko ospitalera eruan zittuen, badaezpada.



Asteburu honetan be izango da zer ospatu Agiñagan. LEIRE ITURBE

Sanmigelen errepikapena Agiñagan asteburuan

Agiñaga auzokuak aurreko asteburuan hasi ziran San Migel jaixak ospatzen. Domekan San Migel eguna ospatzeko meza berezixa egiñ eben ermittan eta, Gorriti eta bere animalixekin jolastu eta gero, Usartza txistulari taldekuekin batera egiñ eben paella-jan edarrarekin agurtu zittuen jaixak, baina bakarrik bixar arte: zapatuan 17.00etan ekingo detse programiari, briska txapelketia jokatuta. Hortik aurrera umiendako jolasak, txokolate-jana, afarixa eta Kupela taldiarekin erromerixia egingo dittue Agiñagan.

Martitzenian aurkeztu eben udaleko inmigraziño zerbitzuak eta SOS Arrazakeriak erakundiak alkarlanian antolatu dittuen "Zurumurrak argitzeko tallarrak". Ana Rodriguez Fouz Gizartekintzako ziñegotzixak, Gorka Errasti Inmigraziño Teknikarixak eta Silvana Luciani SOS Arrazakeria Gipuzkoako presidentak egindako aurkezpenian esandakuari jarraituta, "etorkiñekiko daguazen jarrera negatibuak moduren batian leuntzeko, gizartian zabaldua daguazen estereotipo eta zurumurrak faltsuekin amaittu bihar da derrigorrez". Asmo hori buruan, "egunero inmigraziñuari buruzko zurumurrak entzutiaz nazkatuta daguazeneri hórri modu egokixan erantzuteko tresnak eta formakuntza eskintzeko" antolatu dittue urrian emongo diran tallarrak.



Inmigraziñuari buruzko **ZURRU-** **MURRUAK** ixiltzeko trebatzen

Ana Rodriguez ziñegotzixak azaldu zebanez, "tallarrak antolatzeko ideia 2012. urteko irailaren amaieran siñatu zan Inmigraziñuaren hitzarmen sozialaren testuinguruan sortu zan. Izan be, hitzarmenaren inguruan herriko talde morduak jardun eben alkarrekin biharrian eta, bestiak beste, integraziñuaren eta alkarbizitzaren gaiñian gogoeta egitteko au-



Errasti, Rodriguez eta Luciani aurkezpen egunian. SILBIA HERNANDEZ

keria euki genduan parte hartzen egon giñan 45 bat lagunak. Etenbarik hazten diharduan dibersidadia aukera modura kudeatziaz eta etorkineri lotuta gizartian emoten dan eraldaketia modu positibuan hartiaz egin genduan berba, beste gauza batzuren artian".

Herriko 35 bat alkartietako ordezarixak siñatutako hitzarmenak jasotzen dabenez, "etorkiñenganako daguazen iritzi negatibueri moduren batian aurre egitteko instituziñuak eta eragille sozialak konpromisuak hartzeko premiñia eguala agerixan geratu zan eta, gauzak holan, zurumurreri aurre egitteko eragilliak hezteko tallar hónek aurreiritzi, estereotipo eta zurumurrak balixo barik lagatzeko erremintta erabilgarrixa izan leikiatzela pentsatzen dogu".

Gorka Errasti inmigraziño teknikarixak Ikuspegi Inmigraziñorako Euskal Behatokiaren azken barometruak neurtutako datuak ekarri dittu gogora: "Barometruaren datuak irakorritta, inmigraziñuarekiko tolerantzia indiziak lau puntutan behera egin dau. Jaitsieria krisixa luzatziaren ondorioz gizartian, ekonomixian eta politikan bizi dogun ziurgabetasun klima hedatziarekin batera emon da. Gauzak holan, instituziñuak derrigorrez zeozer egin bihar dabe, 'intensidade txikiko arrazakerixia'

eragitten daben perzepziño negatibuekin behin betiko amaitzeko".

Gai bakotxerako adituak

Tallarrak lau saiotan egituratu dittue eta hiru orduko iraupena izango daben saiuetako bakotxa gidatzen egun horretan landuko daben gaixan aditua dan batenbatego jardungo dau. SOS Arrazakeria Gipuzkoako presidentia dan Silvana Lucianik aurkezpenian azalduatokuari jarraituta, "tallarretan parte hartzen dabenak, bestiak beste, zurumurrak bat zelan sortzen dan eta informaziñua erabillitta horri zelan aurre egiñ ikusiko dabe. Izan be, zurumurrak oiñarrizko ezaugarri bi eukitzen dabe beti: ez dakigu nun edo zelan sortu diran eta oso gatxa da hórri aurre egittia bakarrik arazoizko argumentuak erabillitta. Zurumurrak kontatzen dabenarekin alkarrizketa sortzia ezinbestekua da, ez jaku interesatzen iñora eruango ez gaittuan alkarrizketarik. Eta hori zelan lortu ikasi egitten da".

Izan be, tallarrak daken helburu nagusixa bertan hartzen dabenak etorkiñen kontra esaten diranak entzutian horri egoki erantzuteko ezagutza eta bestelako baliabidiekin jatzia da. Lucianiren berbetan, "zurumurrak ahuan darabilenari zalantza eragitten ikastia da tallarratako asmo na-

gusixa, esaten dabenaren gai-
ñeko hausnarketia egittera
bultzatzea, arrazoia erabiliz
gero zurrumuruak arrazoibari-
kuak eta baztertzailiak dirala
ikustaraztea. Bidegabekuek di-
ra etorkiñendako, baztertu egi-
tten dittuelako, baiña hortik
haratago bidegabekuek dira
gizartiarendako berarendako
be, jarrera horrekin zuzena ez
dan informaziñua siñesten
amaitu eta hortik eratorritako
portaera bidegabiak eta baz-
tertzailiak sortzea ahalbide-
tzen dogulako".

Aurkezpena agurtu aurretik
herritarrak tallarretan parte
hartzera animau nahi izan di-

ttue, "edozeiñ izan leikialako
zurrumuruen kontrako eragi-
llia, nahikua da zurrumurruei
aurre egitteko gogua eukitzia.
Holan, zenbat eta holako era-
gille gehixago egon, orduan
eta errezagua izango da zurr-
muruen kontrako sare modu-
kua sortzia eta, horri esker, ba-
tuagua dan gizartia eratzea".

Izena emoteko epia zabalik

Programari jarraituta lau
saio izango dira guztira (urri-
aren 9, 16, 24 eta 28xan,
18.00etan hasitta) eta Portalea
Kultur Etxian (ikastaro gelan)
emongo dittue. Plazak muga-
tuak dira, horregaittik parte



laz inmigraziñuaren inguruko hitzarmena lantzen jardun eben herriko 35 bat taldek. SILBIA HERNANDEZ

hartu nahi dabenak aurretik
izena emon biharko dau, uda-
leko Inmigraziño alorrera dei-
ttuta (943708440) edo emaila

inmigrazioa@eibar.net helbi-
dera idatzitta.

Lehen saia urriaren 9xan
izango da eta Begiruneko Xa-
bier Aierdi soziologuak emon-
go dau. Hillaren 16xan SOS
Arrazakeriako Agustin Unzu-
runzagak jardungo dau, hilla-
ren 24an Raquel Moreno Bar-
tzelonako Xarxa Antirumors-
eko ordezkariaren ahotik Ka-
taluñako esperientziaren bari-
jasotzeko aukeria izango da
eta, amaitzeko, hillaren 28xan
Silvana Lucianik gidatuko da-
ben erreflexiñorako jardun-
aldia antolatua dabe.



Tallarren asmua zurrumuru faltsueri aurre egitteko bittartekuek emotia da. SILBIA HERNANDEZ

Zurrumuruak argitzeko TALLARRAK

- Urriak 9, eguaztena: "Kulturak eta identitateak. Aurreiritziak, estereotipoak eta zurrumuruak". XABIER AIERDI (Begirune).

Edukixa: Zer da kulturua? Nola egituratzen dira kulturak? Identidadiarene eta aniztasunaren erai-
kuntza Mendebaldian. Nola sortzen eta eraikitzen dogu bestiaren irudixa eta geu-arena? Au-
rreiritzia, estereotipua eta zurrumuruen definiziñua eta aniztasunari buruzko iruditegixaren
eraikuntzan daken betekizuna. Estereotipuen, zurrumuruen eta aurreiritzixen sorreria eta za-
balkunderako gune eta bidien azterketia.

- Urriak 16, eguaztena: "Zurrumurruei erantzuten".

AGUSTÍN UNZURRUNZAGA (SOS Arrazakeria).

Edukixa: Inmigraziñuari buruz Eibarren emoten diran zurrumuru nagusixen azterketia. Gaur
egungo giruan zurrumurruekin egiten dan erabilleria eta ildo horretako arrazoibidien azterketa
politikua. Aittamen berezixa egingo jako European gero eta indar gehixago daken eskuin mu-
turreko joereri.

- Urriak 24, eguena: "Zurrumuruak kudeatzeko komunikazio eta emozio estrategiak".

RAQUEL MORENO (Xarxa Antirumors Barcelona).

Edukixa: Zergaittik da gata zurrumuruak deuseztatzea? Gizarte, psikologixa eta emoziozko
osagaixak. Enpatia abiapuntu. Nola egiñ aurre alkarrizketiari zurrumuru bateri ezetza emon
nahi detsagunian? Zalantza erein. Jarrera positibua. Komunikaziño ahalmena eta alkarrizketa-
rako atalik inportantienak. Berbatik haratago dagan adierazpida eta ahotsaren doiñua. Era-
ntzuteko estrategiak.

- Urriak 28, astelehena: "Zer egin dezakegu Eibarren zurrumuruen aurka?"

(SOS Arrazakeria).

Edukixa: Aurreko saietan ikusi danaren gaiñeko erreflexiñuak egitteko saia izango da.

ETORKIÑERI BURUZKO BOST GUZUR HAUNDI

**Ezin dogu etorkin
gehixago onartu:
larregi dira**

**Etorkiñak laguntza
sozialetatik bizi
dira eta euretz
abusatzen dabe**

**Etorkiñak biharra
kentzen deskue**

**Inmigraziñuak
matxismua eta
genero indarkerixia
haunditzen dabe**

**Etorkiñak ez dabe
integratu nahi**

AGUSTIN UNZURRUNZAGA (SOS Arrazakeria)

"Zurumuru batzuk guztiz deliranteak dira"

- Zure saioan Eibarren ematen diren zurumuru nagusiak aztertuko dituzu. Zeintzuk dira?

Ia Gipuzkoako herri guztietan inmigratioarekiko zabaldua dauden zurumuruak berberak dira: gizarte prestazioetaz abusatu egiten dutela, etxebizitza publikoak okupatzerakoan abantailak dituztela eta bertakoei baino errazago ematen zaizkiela, osasun sistema publikua bertakoei baino gehiago erabiltzen dutela eta batzuetan kolapsatu ere egiten dutela, ez dutela integratzerik nahi eta integratzeko ahaleginik ez dutela egiten...

- Zelan sortzen eta hedatzen dira aurreiritzi faltsu horiek?

Zurumuruak aurreiritzietan oinarritzen dira. Eta aurreiritziak, berriz, besteekiko ikuspuntu estereotipatu batean, giza talde baten ezaugarriren bat orokortu eta exageratuta eraikitzen dira. Aurreiritzietan, norberaren gizataldea baloratu eta goraiatzeko da eta

"besteak" (beltzak, musulmanak, ijitoak, inmigranteak orokorrean edo talde konkretu batzuk, latinoak, magrebiarrak, errumaniarrak...) desbalorizatu egiten dira. Bestea baztertzearen aldeko jardunean aurreiritzia oinarritzeko forma bat dela esan dezakegu.

- Zein da horiei aurre egiteko edo horiek ixilarazteko modurik eraginkorrena?

Lehenik eta behin, beraietaz berba egitea, oinarri faltsuak dituztela azaltzea, errealitatearekin zerikusi gutxi duten iritzietan oinarritzen direla ikus taraztea. Zurumuru batzuk errealitatearekin zerikusia badute, nahiz eta orokortzerakoan eta exageratzerakoan dena hankaz gora jartzen duten. Baina badaude beste aurreiritzi eta zurumuru batzuk izugarri deliranteak direnak. Lehenengoein, eztabaidaren bitartez gauza batzuk argitu daitezke. Bigarrenekin, ezinezkoa da.



- Zer egin dezakegu diotena gezurra dela erakusten duten datuak eta argumentuak eskuan ditugula entzun nahi ez dutenekin?

Gauzak esplikatu egin behar dira, eta pertsona horiek ziurtat jo eta aurkezten dituztenak zalantzan jarri. Hori da lehenengo pausua. Zalantzetatik tira egin daiteke, nahiz eta askotan guztiz konbentzitzera ailegatu ez. Hau epe luzerako lana da. Gauzak ez dira konpontzen bakarrik beste datu batzuk ematen, nahiz eta hori derrigorrezkoa izan. Gaur egun, egunkari batzuek (Le Monde, Liberation...) eta hainbat telebista katek (Artek, adibidez) dexintozikazio atalak dituzte.

- Nolako lotura dago zurumuru eta eskuin muturreko joeren artean? Zenbaterainoko garrantzia daukate horrelako taldeen indarra gero eta handiagoa izateko orduan?

Eskuin muturra (gaur egun, European, eskuin muturra korronte politiko nahiko konplexua da) aurreiritzi eta zurumuruetatik baliatu egiten da bere eguneroko jarduna aurrera eramateko. Zurumuruek giro moral ezkorra sortu eta landu egiten dute inmigratioaren edo inmigratioaren zati batzuren kaltetan, eta hor eskuin muturra oso gustora sentitzen da. Bestalde, eskuin muturra bera arduratzen da aurreiritzi askori forma politikoa emateaz, sarritan kontsigna bihurtuz. Aurreiritzi askoren oinarrian, abiapuntuan, lehentasun nazionalaren aldarrikapena dago: gu lehenengo, guk esku bide gehiago eduki behar ditugu besteek baino, besteek ezin dituzte gure eskubide berdinak eduki. Eta lehentasun nazionalaren aldarrikapena gaur egungo Europako eskuin muturraren oinarri oinarritzeko ideia bat da.



PERTZEPZIO FALTSUEN ERAGILE

XABIER AIERDI SOZIOLOGOA ETA EHUKO IRAKASLEAK ZABALDUKO DITU zurumuruak argitzeko taillerak, lehen saioa berak emango du-eta. Inmigratio kontuetan aditua, Ikuspegi@k gizarte gaien behatokiko zuzendaria izandakoak hamaika lan argitaratu du inmigratioaren fenomenoaren ingurukoak azaltzen. Ikuspegi@k berak argitaratutako Barometroan, berriz, inmigratioaren inguruko pertzepzio eta jarrerak batzen dituzte, ondoren ikuspegi soziologikotik abiatuta aztertzeko. Barometroak jasotako datuei kasu eginez gero, "Euskal gizarteak EAEn bizi direnak baino atzerritar gehiago dauden sentsazioa du. Asko dira, gainera, inmigranteen kopurua dezentekoa dela uste dutenak, eta ehuneko adierazgarri batek uste du gehiegi direla. Erroldatutako atzerritarren kopurua uste zutena baino hiru aldiz txikiagoa dela esaten zaienean ere, jendeak eutsi egiten dio pertzepzio edo hautemate horri. Hala ere, nabarmentzekoa da, era berean, galdetutako pertsonen herenaren ustez ehuneko txikia dela atzerritarren portzentajea %6,6koa izatea". Pertzepzio hori, neurri handi batean, gizartean egunero entzuten ditugun zurumuruek bultzatutakoa dela diote adituek.

Zapatuko Tailerrak programaren barruan, Pedro Vilas 23 urteko gazteak kale dantzen inguruko klaseak emango dizkie ikastaroan izena ematen duten Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrei. Horrelako ikastaroak antolatzean, Udalak gazteek ondo pasatzen duten bitartean euskeraz berba egitea bilatzen du. Horregatik, adin horretako ikasleei erakargarria egingo zaielakoan, hiru zapatu arratsaldetan behintzat, euskerak eta hip-hopak eskutik helduta egingo dute dantzan Portalean.

- Nolako ikastaroa emango diezu izena eman duten gazteei?

Ikastaroa sei ordukoa izango da eta, beraz, hip-hop dantzei hiru ordu eta break dantzei beste hiru ordu eskaintzeko asmoa daukat. Ikastaroaren iraupena hori dela kontuan izanda, bertan parte hartzen duten gazteek dantza moeta bien inguruko oinarrizko kontzeptuak ikasteko aukera izango dute.

- Horrelako beste ikastarorik eman duzu aurretik ala hau izango da irakasle diharduzun lehen aldia?

Ez, aurretik ere eman ditut antzerako beste ikastaro batzuk. Aurreko ikasturtean, adibidez, Gipuzkoako hainbat herritan ibili nintzen ikastetxe batetik bestera umei dantzak erakusten.

- Eta zer moduz? Gustatzen zaizkie zuk erakusten dituzun dantzak?

Baietz uste dut. Askorentzat horrelako dantzak nahiko ezezagunak ziren ni ailegatu eta zerbait erakusten hasi arte. Hala ere, azken urteetan asko ezagunagoak bilakatzen dihar-

dute. Uste dut telebistak eta internetek berak eragina badutela eta, eurei esker, dantza horiek jendearentzat gero eta ezagunagoak direla. Horrekin batera, jendeak kale-dantzen inguruko jarrera zabalagoa daukala pentsatzen dut.

- Beste dantza batzuetan, orohar, neskak mutilak baino gehiago animatzen direla entzuten dugu sarritan. Gauza bera gertatzen da hip-hop, break-dance eta horrelakoetan?

Ba hauetan ere neskak mutilak baino gehiago animatzen dira gehienetan. Baina behin probatzen hasita, mutilak ere oso gustora ibiltzen dira dantzan.

- Zu zeu beste mutil batzuekin batera hasi zinen dantzan. Elkarrekin jarraitzen duzue?

16 urte nituenean hasi nintzen beste lagun batzuekin batera dantzatzen, hasieran kiroldegian batzen ginen eta erakustaldi eta saio batzuk ere eskaini genituen. Baina horrek ez du jarraipenik izan eta gaur egun beste hiruzpalau lagunekin batera entrenatzen dut, geure kontura jarduten dugu, beste barik.



Pedro Vilas
(DANTZA IRAKASLEA)

"Probatuz gero, mutilek ere gustora dantzatuko lukete"

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7

merkalitatea

Beldur Barik Jarrera! lehiaketa martxan

Aurten ere Beldur Barik Jarrera! gazteentzat pentsatutako lehiaketa antolatu dute "emakumeek jasaten duten bereizkeria egoerari aurre egiten dioten egoerak" islatzen dituzten lanak jaso eta horien arteko onenak saritzeko asmoz. Lehiaketara aurkezten diren lanen adierazpen artistikoari dagokionez, mota guztietako adierazpideak onartuko dituzte antolatzaileek, hori bai, beti ere lana ikus-entzuzko formatuan aurkezten bada: flashmob, kamera aurrean erreztatutako poemak edo irakurritako gogoeta-testuak, argazkiak, argazkimuntaiak, fonobelak, lipdubak, dantza, film laburrak, animazio proiektuak, proiektuak edo artelanak

bidean, performanceak eta kaleko esku hartzeak... Antolatzaileen berbetan, "lanek emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman libre, errespetuzko, parekide, anitz eta ez-sexistak eraikitzeke konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi beharko dute. Kalitate tekniko edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da".

Lehiaketan Euskal Autonomia Erkidegoko 12 eta 26 urte bitarteko neska-mutilek har dezakete parte, Beldur Barik jarrera islatzen duten proiektuekin eta, adinaren arabera, maila bi bereziko dituzte: lehen mailan 12 eta 17 urte bitarteko gazteen lanak lehiatu-



ko dira eta bigarrean, berriz, 18 eta 26 urte bitartekoak. Banaka zein taldeka (ikastetxe gisa, ikasgela gisa edo elkarte gisa), bietara parte hartzeko aukera dago. Gazte (edo talde) bakoitzeko gehienez hiru proiektu onartuko dituzte eta lanak azaroaren 15era arte jasoko dituzte. Irabazleentzat hainbat sari banatuko dituzte: lehen mailako saria (500 euro),

maila bereko aipamen berezia (250 euro), bigarren mailako saria (500 euro), maila horretako aipamen berezia (250 euro) eta herriaren saria (300 euro). Lanak nola eta noiz entregatu, izan beharreko ezaugarri eta bestelako guztien inguruko informazio guztia www.beldurbarik.org webgunean aurkituko duzue. Animatu eta ez izan parte hartzeko beldurrik!

Ekintzailetasunari eskainitako jardunaldia Uni-an



Debegesakoek eskolara egindako bisita aprobetxatuta, autoenplegu jardunaldia egin zen astelehenean.

Astelehenean Uni Eibar-Ermuak gure herrian duen ikastetxean ekintzailetasunari eta autoenpleguari eskainitako jardunaldia egin zuten, Debegesako ordezkariak eskolara egin zuten bisita aprobetxatuta. Garapen agentzian enpresa proiektuei laguntzeko departamentua zuzentzen duen Vanesa Hortasek gidatutako jardunaldian, besteak beste, ekintzailetasunaren kultura indartze aldera horrentzat oinarriak ezartzen ahaleginu ziren. Jardunaldia Uni Eibar-Erma ikastetxearen ekimenez egin zen. Izan ere, azken urteetan ahalegin berezia egiten dihardute ikasleen artean ekintzailetasuna bultzatu eta norberak bere enpresa proiektuak errealitate bihurtzera animatzeko, besteak beste Urrats Bat moduko programari jarraituta.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladatuta

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKEKAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: 943 201095 FAX: 943 202564


MUGICA ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Udal Artxiboaren laguntzarekin



Aurreko domekan, iraillaren 29xan, 50 urte bete ziran Arrate Kultur Elkartiak lokalak barritsu zebanetik. La Kultu izeneko alkartia 1952xan sortu eben Arrateko Asociacion Marianako gizonezko gaztiak. 61 urte hauetan lan haundixa egin dau kultur arloan, herrixan erreferentia bihurtuta. Irudixan, Serafin Basauri, Angel Arregi eta Enrique Aizpitarte fundatzaillietakuak. UDAL ARTXIBOA.

XX. mendearen bueltan

Hona hamen TOMAS ETXALUZE eta PEDRO SARASKETA Eibarko korresponsalen XX. mendiaren hasierako kronika bi (1911ko eta 1912ko urtarrilla). Sasoi hartan be 'zezenak bai, zezenik ez' eztabaida bizi zeguena erakusten dabe eta, baitta, monarkixaren instituzifua be. Ixa ehun urte geruago gauzak bere horretan dihardu, aldaketa gitxirekin.

Flamenkismuaren kontra

Salon Teatruan emon zeban hitzaldixa Eugenio Noel propagandista errepublikanua. Gitxittan piztu da hainbeste interes. Lokala jendeaz lepo zeguan, asko eta asko andrazkuak. Akilino Amuategi ziñegotzi sozialista egon zan presiditzen, hitz gitxittan hizlarixaren aurkezpena egitteko. "Flamenkismua eta ideia sozialista modernuak Espaiñian" gaixaren inguruan jardun zeban, aurretik Bilbon egin moduan, baiña oinguan gogorrago egitten eta desenfado haundixagarekin. Zezen-korridak deskribitzen hasi zan, pikadoriaren, banderilleruaren eta ezpatarixaren tipuak aztertuz. Lamiña edarreko zezena plazaratzerakuan zelako txaluak jasotzen dittuan ikusitta, ez ziñestekua egitten jako hura akabatzerakuan ezpatarixari txalotzia, horren logikia inñundik ez susmatzeraiño. Arduratuta dago, aldi berian, flamenkismua herrixaren espirituan noraiño sartu dan ikusitta: Andaluziako eta Andaluziatik kanpoko umiak torero guztien izenak primeran dakixela jabetuta, aberriko gizon argixenen barririk ez dakittentian, ez izenik ez meriturik. Baiezatzten dau normalian millo asko irabazten dabela zezen-korridetan, danak ganaderuen eta toreruen poltsikuetara doaizenak, intelektualak gosez hiltzen diran bittartian. Diño benetako atsegiñez irakortzen dirala periodiko taurinuak eta zezen aittamenak, inñor gitxik apenas kasu egitten detsanian kultur lanak egitten dabizeneri. Gehitzen dau Bombita, Machaquito eta zezen-munduko bestien izenak ahaztu arte ez dala iraultza ailegalko, zezen-plazak kendu eta horrek kultur-zentro edo gimnasixuak bihurtu arte. Ejenplua emotiarren, eta ironia puntuarekin, Esquilacheren markesarena aittatzen dau, Machaquitoren azken harrapaketaren ondoren zelako interesa ipiñi zeban zezenaren adarra nondik eta nola sartu jakon jakittek. Txarto ikusten dau erregiak korridak presiditzia, baiña

txartuago oindiokan ikusten dau errepublikanua gauza bera egittia. Salatzen dau, Bilbon egin zeban lez, ahalegindu zala flamenkismuaren kontrako artikulo batzuk publikatzen "España Nuevan", baiña ez zetsela aukeztutako lanak onartu Machaquito periodikoko akzionista dalako. Flamenkismotik inñolako espiritu garbirik ez dala atera diño eta, Guerritak Eibar osua hartuko leuken finka dakan bittartian (etxe hau Guerrita zezen-hiltzaillik jasotakua da' errotuluak harro erakusten dabenez), Wagnerrek etxe apal bat zekala bakarrik bere abizenarekin. Ganaderiak aittatzen dittu, arazo obreruarekin nahastuz, eta bakarrik Andaluzian 144 behitalde dagozela gehittu, bertako bazkalekuak millaka hektarea hartzen dabela esanez, lur horrek ondo landuta famelixa eta herri askotako gosiarekin amaitzeko laiñ izango ziranian. Politikara salto eginda, Cullerako presuen aldeko indultua eskatziaren aldeko girua ekartzen dau gogora eta berak be erregiari kartia bialdu detsala emoten dau jakittera, infanta jaiobarrixaren izenian eskatutako grazia moduan. Indar haundiko esaldixak erabiltzen dittu iraultza etorriko dan egunian gerta leikezen gauzak zihazterakuan, ordurako horrek gizonok patibulotik pasatu badira behintzat. Monarkixaren kontra egingo dau, instituziño horretan eragin bihar dala esanez, baiña odolig gabe `ahal dan neurrixan'. Batutako gaztieri zuzentzen jakue, flamenkuak ez izateko erregutuz eta, plazara doiazenian, toreatzaillieri `hor doia moralatsunik eza, España zaharra da hor doiana' esateko deiza egiñaz. Hizlarixak arrakasta itzela euki zeban eta txalo mordua jaso zittuan. Hitzaldixa amaittuta, Akilino Amuategik bat egin zeban Cullerako presuen aldeko jarreriarekin eta 'Eibarko herrixari' irakorri zetsan Canalejasi bialduko zetsen telegramia, Noelek, Amuategik berak eta Madinabeitiak siñatutakua.

Zirkulo konserbadoria klub taurinua bihurtuta

Zorigaitzokuak halakuak! Gobernadoriak eta alkatiak izatia espero ebenak musu-huts geratu dira. Armaixo barrenetik kristau-erropak etara zebenak, euren ordua zalakuan, barriro be gorde egin bihar izan dittue erropok, jantzi-sitzen mesederako. Hor doiaz barriro, buz-tana hanka-artian, euren balzar illunetara. Baiña hori guztiori gitxi da Eibarren gertatutakuarekin konparatuta. Hiri sinpatiko horretan baeguan Zirkulo konserbadoria, bertako horma serixue-tan eskarpia serixuagotik zintzilik Maura eta Cierva gurtzailien erretratua. Hango guztiaik ordenari jarraitzen detsa, zorrotz, alderdixa ordezkatzan dabela siñestuta. Eibarko konserbadorieri, beste guztieri moduan, pajari-llia poztu jakuen eurenak boteria eskuratuko zebela hain seguro zeguazen! Baiña honek konserbadoriok eibartarrak be badira eta, zelan ez, umore originala eta zabalaren jabe, eta Canalejas gobernuan jarraitziaren ezustekua flamenkotasunetik hartu dabe.

Ez dira, ez, motz geratu, eta euren zirkulari Konserbadore izena kenduta, hamendik aurre-ra Klub Taurinua deittuko detsa. Eta di-da batian, erabagi apurtzaille hori mugaraiño eruanda, Maura eta Ciervaren erretratua be kendu dittue bertatik eta, euren orde, Muñagorri eta Txikito de Begoiñarena ipiñi dittue. Gure korresponsalak halakuere publikidadia emotia ez dala komeni esan badesku be, guk ez dogu halan pentsatzen eta gustora hartzen dittugu halako destituaren ironiak, askotan gertatzen dalako txantxak egixa bihurtzen dirala. Badakizue, txutxu-mutxuak diona gaur egixa ez bada be, bixar bene-benetakua izan leike! Ez desku grazia haundirik egitten Zirkulo Konserbadore bat Klub Taurinua bihurtzia, baiña eredugarrixa da Maura eta Ciervaren ordeze edozein bi maletilla ipintzia. Ados egongo garalako bi zaldun horrek, politiko moduan behintzat, alternatibia galdu dabela eta honetzkeru, zezen-plazara urtetzekotan, patatazuen euripian besierik ez dabela merezi urtetzia.



Antonio Maura.

VNZAGA PLAZA - PLAZA DE VNZAGA



Txotx!



*Urriak 5
zapatua*

goizez eta arratsaldez



1993an ekin zion ...eta kitto! Euskara Elkartek Sagardo Eguna antolatzeari, baina orain lau urte geldiduna egin eta gero, guztiz aldatu zen egun handi hori. Egun osoko ekitaldia egitea erabaki eta gero, orain dela bi urte Gorenak Sagardoak markako lagunekin elkarlana hasi zuen elkartek. **Goizez eta arratsaldez** egindako ekitaldiak dira gaur egun. Gainera, urtero **berritasunak** sartzea da helburu, eta aurten ere horietako bat izango da.

Irrintziarekin batera, hasiko dugu bale salmenta eta dastaketa, 12.00etan.

Jokoak eta mozorroak

Sei euroren truke

Mota biko tiket edo baleak izango dira salgai eguerdiko 12etatik aurrera, udaletxe parean izango den salmenta puntuan. Tiket nagusiak sei euro balioko du eta urteroko moduan horren trukean edalontzia, zapia, pintxo eta txotx-a izango dira. Pintxoetan aukera bi izango dira, txorizoa eta gazta; pintxo horren balea izango da bigarren aukerakoa. 1,50 euroko prezioarekin beste pintxo bat jateko aukera izango duzue. Udaletxe parean izango dituzue bale salmenta eta edalontzien banaketa.



Iaz be izan zen Eibarko gaztetxoendako jokorik, baina aurten jokoak eta mozorroak izango dira. Urtero ipintzen den erakusketaren alboan, sagar mozorroak eta jokoak izango dira. Begiraleek mozorroak egiten lagunduko diete gaztetxoenei eta jarraian joko interesgarria izango dugu: **altxoraren bila**. Untzaga plazan ezkutatuko ditugu sagar berezi batzuk eta horiek topatu beharko dituzte. Zein izango da azkeneko pistaren emaitza? Animatu gaztetxoan eta **12.30etan** gerturatu erakusketara, Ihintza, Maier eta Lorea zuen zain izango dituzue.

Gabonetako OTARRA nahi duzu?

Gezurra dirudi, baina Gabonetan pentsatzen ere hasi da ...eta kitto! Euskara Elkartea. Aurten **2.000 euroko** balioa duen **ikaragarritzko otarra** zozketatuko dugu. **Abenduaren 18an** izango da zozketa, baina parte hartzeko **euro bateko boletoa** erosi beharko da. Elkartearendako proiektu berria da, **ez baitugu loteriarik salduko aurten** eta otar berezia zozketatzea pentsatu dugu. Sagardo Eguna aproposa dela pentsatzen du elkartek, 2013ko berritasun hori martxan jartzeko.



GOIZEZ:

12.00etatik 14.30etara

ARRATSALDEZ:

19.00etatik amaitu arte


BI TIKET MOTA IZANGO DIRA:

6 eurokoa

(edalontzia, zapia, pintxoa eta nahi beste sagardo)

1'5 eurokoa

(pintxoa: txorizoa eta gaztaia eta menbriloa)



13 sagardotegi Gorenak


Alorrenea (Astigarraga) Alzueta (Hernani) Barkaiztegi (Donostia) Begiristain (Ikaztegieta) Egi-Luze (Errenteria) Gartziategi (Astigarraga) Gaztañaga (Andoain) Gurutzeta (Astigarraga) Isastegi (Tolosa) Olaizola (Hernani) Sarasola (Asteasu) Zapiain (Astigarraga) Zelaia (Hernani)



Erabili #SagardoEguna eta egin gurekin batera eguneko kontakizuna

HIRUGARREN URTEZ Facebook eta twitter bitartez eguneko kontakizuna egitea nahi du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Iaz be eskatu genizuen laguntza eta izan genuen, benetan, baina aurten berriro ere zuegan jotzen dugu: zuen laguntza behar dugu Sagardo Eguna gertatzen dena sarean ezagutarazteko. Gaur egun hain garrantzitsuak diren sare sozialetan txokoa eman nahi dio ...eta kitto!k euskarari eta sagardo egunari, baina guk bakarrik ezin dugu eta #SagardoEguna hitz gakoa erabilita, zuen parte-hartzea espero dugu.

Goiz eta arratsaldeko eguna bilakatu zenetik, Sagardo Eguna esatari bat izan du, jaialdia girotzeko: noizbehinka txotx-a eskatzeko edo bertaratuak xartzeko. Baina Untzaga plazan izango den giroa sare sozialetan adierazteko #SagardoEguna erabili eta gero, esatariak ere egingo die errepaso Facebook eta Twitter-en esaten direnei.



Zozketa, iaz moduan

Gertatzen den guztiaren berri emango du Facebook-eko ...eta kitto!ren orrialdeak eta twitter-eko @etakitto perfilak, baina horrez gain, zuetako edo-

zeinek izango du kontakizuna egiteko aukera eta saria izateko aukera. Saria? Zer nolako saria izango da, ba? galdetuko dio batek baino gehiagok bere buruari. Iaz egin genuen moduan, aurten ere zozketa egingo dugu eguneko parte-hartzaile guztien artean, euskaraz Sagardo Eguna zer nolakoa izan den kontatzen laguntzen digutenean artean. Zozketaren irabazleak Gorenak-eko sagardotegietako botila bana jasoko du.

Zozketa urriaren 9an egingo dugu, hau da, datorren asteazkenean. Izan ere, urtero egiten dugun moduan, datorren astelehenetik alean ere errepaso egingo zaio zapatu honetan Untzagan gertatutako guztiari eta tartean zozketa honen berri ere emango da. Lagundu zapatuan eta zorte on zozketan.

Argazkiak Facebook-eko orrian
etakitto.com eta Facebook-eko elkartearen orrialdean sartzten ditugu gure herriko albis-

te eta argazkiak. Elkartearen egun handia bilakatu da Eibarraren Sagardo Eguna, eta jakina, horrek ere izango du isladabegunetan eta Facebook-en. Hori dela eta, #SagardoEguneko argazkiak Facebook-en izango dira zapatuan bertan. Goizean egindako argazkiak arratsalderako izango dituzue zintzilikatuta eta arratsaldekoak domekan bertan izango dira ikusgai.

Jendez gainezka egiten du Untzagako plazak urriaren lehenengo zapatuan. #SagardoEguna urteko zita garrantzitsua bihurtu da herrian; horrela adierazi digute hainbat tabernarik eta egoten den giroa azpimarratu dute. Gorenak markako hamahiru sagardoak probatzeko aukera izango duzue, argazkiak egiteko aukera, eta zergatik ez, gurekin batera elkarbanatu. Guztien artean adierazi dezagun zein egun ona izaten den #SagardoEguna.



2012ko zozketako txio irabazlea @VirginiaZuazo-k idatzi zuen.



Markel Alberdiren markak gure herriak igeriketan eman duen onenak dira. Inork gutxik esperoko zituen halakorik txikitan Urbat taldearekin hasi zenean, baina progresio maila ikaragarriak uztailean Bartzelonan jokatu ziren Mundialetara eraman zuen, han erreleboetako proban parte hartzeko. Beka bat aprobetxatuz ikasturte hau Madrilen egiten duen bitartean. Eguneroko entrenamenduek ikasketei tartea kentzen badiete ere, igerilariak argi du "ikastea dela printzipalena".

MARKEL ALBERDI (igerilaria)

"Ahaztu ezinezko esperientzia izan zen Mundialetakoa"

- Zer moduz Madrilen? Eibarrera etortzeko denbora faltan?

Egia da, ez zait erraza egiten, entrenamenduak zapatueta 11.30etan amaitzen ditut-eta. Bestela, ondo nago Madrilen, urtebeterako bekarekin. Jendea ezagutzen noa, taldearekin ondo konpontzen naiz eta instalazioak ere egokiak dira.

- Zelakoa izan zen uztaileko Mundialeko esperientzia Bartzelonan?

Halakorik ez nukeen imajinatuko! Ez zen izan bakarrik lehiatu nuen eguna: parte hartu behar nuela jakin nuenetik bizi izan nuen. Idoloekin egotea, eurekin berotu... Proba ez zen ondo atera, baina ahal nuena egin nuen, zeozer hobeto ibiltzeko aukera banuen ere. Jendearena zer esanik ez! Eibartik, Donostiatik, Irundik... Abisatuta nengoen, baina hala ere asko lagundu zidaten denek.

- Jarraian Espainiako txapelketan lehiatu zenuen Kanaria Handian...

Handik lau egunetara izan zen, Mundialean proba bakarra egin ondoren. Kostatu zitzaidan konzentratzea, nire burua presionatua sentitzen bainuen. Hala ere, lehenengo proba bikain irten zitzaidan, nire orduko marka hobetu nuen eta Czerniak poloniarrek bakarrik irabazi zidan: ondo ibili nintzen.

- Askok aldatu zara hasieratik? Abiaduraren alde jo duzu?

Txikitan denetik probatu nuen, 200 eta 400 metrotik gora gehie-

netan. Varduliara pasatzerakoan eta gero Bidasoan distantzia handiagoak pixka bat baztertu eta 100 eta 200ekoetan zentratu naiz gehienbat. Lortutako emaitzek bideratu naute abiaduraren alde jotzera eta proba luzeagoak aspergarriagoak egiten zaizkit orain.

- Entrenamenduetan ere nabarituriko zenuen aldaketa hori, ezta?

Bai, hazi ere Donostian hazi nintzelako gehiago. Uretatik kanpo, gimnasioan jardun nuen batez ere, indarra hartzeko eta abiadura lantzeko, batez ere.

- Orain zenbat entrenatzen duzu egunero?

Bost bat ordu: bi eta erdi goizez eta beste hainbeste arratsalde. Uretako lana goizez egiten dut eta arratsaldetan abiadura lantzen dut gehienbat. Gustorago sentitzen naiz arratsaldekoarekin.

- Phelps da zure benetako idoloa? Markel Phelps' eta hakoekin animatu zaituzte...

Bada ez: haren ospea tarteko, lagunentzat txantxa besterik ez da. Hori bai: baloratzen da haren lana, oso zaila baita hainbes-

te modalitatetan destakatzea. Nire proban Cameron Mcevoy australiarra gustatzen zait: fisikoki besteak baino txikiagoa da, gazteagoa... eta hor dago, Mundialean 4.a izan zen.

- Igeriketa jarraitzeko aukerak eskaintzen du telebistak?

Ez dute ezer ematen. Zortea izan genuen Mundialak Bartzelonan izan zirela. Interneteko orri berezi batzuetaz baliatzen naiz; bestela, ez dago ezer.

- Baduzu gogoko igerilekurik? Eta zuri borobilen atera zaizun probarik?

Bartzelonakoa, hain handia, jendez beteta, ez dut inoiz ahaztuko. Madrilen eta Castellonen ere ondo sentitu naiz. Gehien gozatzerako orduan, Pontevedrako Opena aipatuko nuke, bezperatik nekielako indartsu eta konfiantzaz nengoela.

- Urbatek egiten duen lanaz izango duzu zeozer esateko...

Hemen banago, Urbatek emandakoari esker dela. Nahiko kaskarra nintzen beste kirol guztietan eta kirol minoritario hori aukeratu nuen. Espainiako mailako nire lehen domina Urbatekin lortu nuen. Txikienetik hasita du maila bat taldeak eta barruan bizi den giroa nabarmentzekoa da.

- Epe motzera zein erronka dituzu?

Aurtengo helburua apirilean jokatu den Espainiako Opena da, nazioarterako txartela ere han izango baita jokoan. Udan Europako txapelketak izango dira eta, horretarako ere, gutxiengo markak eskuratu behar dira.



Eibar FTko eskumako zentrala aukeratzeko ordua

Eskumako lateralaren aukeraketaren ondoren, bazkideek eta akziodunek aste honetan eskumaldeko zentrala aukeratu beharko dute, Eibar FT-ko 75. urtemugako hamaikako ideala osatzeko bidean. Botoa emateko, mezua bidali behar da 1940-2015@sdeibar.com helbidera,



Karmona Eibarko zaletuak agurtzen.

izen-abizenak, bazkide zenbakia eta aukeratu-tako jokalaria adieraziz. Orain arte aurreselektzionatutako eskumako zentralak ondorengoak dira: Javier Muñoa, Agustin Gisasola, Jose Luis Ribera, Antonio Karmona eta Luis Fernando Rodriguez.



Deltaco bikain Euskadiko duatloi kros txapelketan

Domekan Usansolon jokaturako Euskadiko duatloi kros txapelketan, Roberto Gartzia onena izan zen beteranoen 1 mailan eta titulu bera eskuratu zuen Juanjo Romerok 2 mailan. Deltaco taldeko ordezkariak, bakoitza bere mailan, onenak izan ziren 5 kilometrotako oinezko lasterketa, 19 kilometrotako bizikleta saioa eta 2,2 km.tako oinezko lasterketa amaitzen.

Eibar Rugby Taldearen aurrendenboraldia

Aieteko errugbi zelaian jokatu zuten Eibar Rugby Taldekoek aurrendenboraldiko hirugarren neurketa, Atletico San Sebastianen kontra. Lehenengo zatia parekatua izan zen eta, donostiarrek eibartarrak baino maila bat beherago jokatzen duten arren, azken hauek ezin izan zuten 20. minutura arte lehenengo entsegua egin. Bigarren zatian, aldiz, erritmo gehiago sartu zioten partiduari, azkenean 12-23 nagusitzeko. Asteburu honetan Altamirako zelaian jokatu dute Ordizia B-ren aurka.



Fernando Fernandez, lehen taldearen entrenatzailea. LEIRE ITURBE

Eibar Eskubaloiak ondo amaitzen asmatu zuen Egian

Egian irabaztea zaila izango zuela aurretik jakinda ere, Fernando Fernandez taldeak azkeneraino eutsi eta une aproposenean markagailuan aurretik ipintzea lortu zuen eta, bide batez, bi puntuak Eibarrera ekartzea (27-28). Aitor Telletxea, 9 golekin, eta Asier Larrañaga izan ziren golegile nagusienak eta, emaitza horri esker, Zaragozako Stadium Casablancarekin batera, sail-

kapenaren goi-goian daude eibartarrak. Bestalde, Euskal Ligako jubenil eta kadete mailetako mutilen taldeek denboraldia hasi zuten asteburuan, biek ere Legazpin jokatuz: jubenilak 20-47 nagusitu ziren eta kadeteak 23-28. Aste honetan hasiko dute denboraldia Lurralde Txapelketako jubenil mailako neska eta mutilek eta, baita, kadete mailako hiru taldeek ere.

Deporreko mendizaleak Euskal Herria zeharkatzen dihardute

Irailaren 11n horko 11. etapa osatu zuten, Lekunberritik Beintza-Labaieneraino joanda, eta bihar Beintza-Labaienetik Belatera joango dira eta, antolatzaileek diotenez, "5-6 orduko ibilbidea" egingo dute. Aurreko etapan 47 lagun izan ziren, "eguraldi bikaina eta paraje zoragarriak dastatzen". Mendi batzordekoek beste bi irteera antolatu zuten irailean: Pirinioetara 21-22ko asteburuan eta haur eta gurasoentzako AUSA Gaztelura 28an. Urriari, bestalde, 12-13ko asteburuan Pass d'Aranera joango dira, 19-20koan soka erabiltzeko ikastaroa eskainiko dute eta azken asteburuan Jarduari Mikologikoetako beste edizio berri bat ospatuko dute.



Beintza-Labaienera egindako zeharkaldiaren irudia. PERIKO IRIONDO

Astelenak ateak zabalduko ditu berriro

Aurreko urteotan baino azkarrago zabalduko dizkio ateak Astelenak pilota profesionalari. Lau eta erdiaren barruko txapelketa hasi aurreko kanporaketa jasoko du domekako jaialdiak, Antzuolako Mendizabal III.a eta Aritz Lasa urretxuarra nor baino nor. Horko irabazleak Ezkurdiaren aurka jokatu du jarraian Aspe enpresako azken adarra osatzeko. Neurketa horren ondoren, Titi III.a-Merino II.a eta Retegi Bi-Pascual bikoteen arteko norgehiagoka izango da partidu nagusian eta, amaitzeko, uda aurreko Astelenako azken jaialdian debutatu zuten Ja-



ka eta Rezusta izango dira berriro, oraingoan bikotea osatzen, Apezetxea eta Laskurainen kontra.

berriak

TRIATLOIA

Euskadiko Federazioak lehen mailako triatloi entrenatzaile ikastaroa antolatu du. Ikastaroa azaroaren 9an izango da eta landuko diren eduki guztiak, bloke komuna, gainditzea beharrezkoa izango da, bloke espezifiko eta praktikaldia gainditzearekin batera, lehen mailako Triatloi Entrenatzaile Diploma eskuratu ahal izateko. Parte hartzeko 325€ ordaindu beharko da.

PILOTA

Zaletuen mailako hiru partidu jokatu dira gaur Astelenan, 19.15etan hasiko den jaialdian. Hasteko, Deporrek pilota eskolako enpresaren arteko partidua jokatu du. Jarraian, gazte mailan, Velasco (Arrillaga) eta Urionabarrenetxea eibartarrek Astigarragako ordezkarien aurka lehiatuko dute. Amaitzeko, Ohorezko mailan, Klub Deportiboko Arribillaga-Unamunzaga bikoteak Azeptitiko bikotearen kontra jardungo du.

Fibrosi kistikoari eskainitako xake jarduna

Zapatu goiz osoa bete zuen fibrosi kistikoa ezagutzera emateko Arnasa Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren elkarteak eta Klub Deportiboak antolatutako jardunaldiak: beste herri batzuetan egindakoaren bidetik, xakea izan zen ardatza. Horretarako, Diego Del Rey xake-maixu haundiak 25



partida jokatu zituen aldi berean Untzagara gerturatu zirenen kontra. Xake partidetan, besteak beste, Eibar Kirol Elkarteak, Eibar Eskubaloiko, Cielito Musika Bandako eta Ikastenteko ordezkariak jardun zuten xake eskolako, Deporrek eta Ermutarrak Xake Taldeko jokalariekin batera.

**GIDA
PRESTATZEN
DIHARDUGU...**

Agertuko zara, ezta?

**eibar
GIDA
2014**

DEITU...

943 20 67 76

943 20 09 18



Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS



Beilatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Bulegoa:
Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

**GRUPO
Funeuskadi**

El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao ·
· Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe ·
· Espinosa de los Monteros ·





KIRMEN URIBE (idazlea)

“Une honetan behar nuen liburua da ‘Mussche’”

Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa-kluba martxan jarriko da berriro urriaren 8an, datorren martitzenean. ...eta kitto! Euskara Elkartek eta Juan San Martin liburutegiak elkarlanean abiatutako proiektuak Kirmen Uriberen “Mussche” liburua izango du aztergai egun horretan. Antxon Narbaiza izango da saioetako gidaria eta hilerok idazle batek bere liburua irakurri dutenekin jardungo du bere lanaren inguruan. Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute liburutegian, telefonoz (943-708437) edo e-mailez (biblioteca@eibar.net).

- Zer eskaintzen dute irakurketa-klubak zure ustez? Idazleoi zer aportatzen dizuzte?

Parte-hartzea eskaintzen dute, batez ere. Betidanik izan dira: Etxepareren “Linguae Vasconum Primitiae” ez da bakoi-tzak bere etxera eramateko liburua, baizik eta eztabaidatzeko aukera ematen duena. Gaur egun ere, horrelako partekatze lanek, hainbat alderdi eta gairen inguruan berba egiteko aukera ematen dutenez, beharrezkoak dira. Idazleok ere asko dugu irabazteko, irakurtzeko mila modu daudelako: horretaz jabetzen gara. Behin irakurlea onartuta, berak asko laguntzen dizu hurrengo libururako. Nik, esaterako, e-mail asko jasotzen ditut, irakurlea nire gain egiteraino.

- ‘Mussche’ liburuan gure historiako zati bat azaleratzen duzu. Inbestigazio lan handia eskatu dizu?

Nahi nuena da benetako pertsona bati buruz idaztea. Haren gauza batzuk ezagutzen nituen eta zituen hutsuneak betetzen saiatu naiz. Gerra aurreko urteetan murgildu naiz gehienik eta behin baino gehiagotan joan behar izan naiz Flandesera, Gantera... Gero, bi hilabetez izan nintzen San Frantziskon eta han idatzi nuen liburua.

- Askotan joan ohi zara San Frantziskora? Zer dela-eta?

Denetarik dago: badiut han irakurleak; lan kontuagatik ere bai, hitzaldiak eta halakoak ematen baitituz. Koadrilakoek oporetan Indiara joaten diren moduan, nik hara jotzen dut.

- ‘Mussche’ zalantzak baino gehiago, kuriosidadea piztuko du jendearengan akaso?

Lan hunkigarria da, oso. Harrapatu egiten zaitu, eta eraman, pertsonalitate handia baitu. Jendeak bizi eta sentitu egiten du. Apropo honako krisi garaioan irakurtzeko. Lurretik datorren lana da, amorrutik sortutakoa. Momentu honetan behar nuen liburua, azken finean, estilismoa eta halakoak baztertua. Ondo pasatuko dugu irakurketa-klubean: denetariko irakurleak espero ditut, ez naiz-eta eliteen zalea.



Iruñeko Disei taldeak lagunduko die Andres de Egiguren orkestrakoei hilaren 11ko kontzertuan.

Andres de Egiguren orkestra, ahotsek lagunduta

Urriaren 11n kontzertua eman go du Andres de Egiguren orkestrak Coliseoan, 20.30-etan, Musikaldiaren programazioaren barruan antolatutako emanaldian. 2008an Pedro Palacinen eskutik jaiotako ganbara orkestran 18 eta 24 urte bitarteko 22 musikari gaztek jardungo dute oraingoan eta kontzertuaren le-

hen zatian Schuberten Bosgarren Sinfonia eskainiko dutela aurreratu dute. Bigarren zatirako, berri, orain arteko emanaldietatik guztiz alden-duko dira: hiru abeslarik eta hiru musikok osatzen duten Iruñeko Disei taldeak lagunduko die orkestrakoei. Kontzerturako sarrerak 7 euro balio du.



Irigoi argipenak eskaintzen bere erakusketa ikustera Portalera joandako zaletu batzuei.

Irigoi argazki erakusketa

Klub Deportiboko Argazkilari-tza Taldeko Jose Luis Irigoien argazkilariaren “50 urte argazkigintzan eta gero hau!” erakusketa Portalean ikusgai egongo da urriaren 13ra arte (martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara). Santurtziarrak mende erdian ka-

mararekin harrapatutako irudiekin erakusketa antologikoa prestatu du eta, horretarako, hormetan zintzilik dauden 140 bat argazkirekin batera hainbat karpetatan sailkatutako beste 400 argazki batu ditu Portaleko erakusketa aretoan.

"Constelaciones" bihar 17.00etan eskainiko dute

Coliseo antzokian Aracaladanza konpainiak bihar aurkeztuko duen "Constelaciones" ikuskizunaren ordutegian aldaketa egin dute aste honetan eta, beraz, iluntzerako iragarrita zegoen emanaldia arratsaldeko 17.00etan izango da. Horrekin batera "ikuskizuna umeendako gomendagarria" dela gaineratu dute antolatzaileek. Sarrerak 8 euro balio du (Coliseoko leihatilan gaur 21.00etatik 22.00etara eta bihar ikuskizunaren au-



Iluntzerako zegoen iragarrita, baina arratsaldean izango da.

rretik; interneten, www.kutxabank.es helbidean). Iaz Madrilén estreinatu zen Ara-

caladanza taldearen koreografiak ia ordubeteko iraupena izango du.

Bertso-paper lehiaketako epea astelehenean zabalduko da

Hilabetez, azaroaren 8ra arte, egongo da XIX. San Andres bertso-paper lehiaketarako lanak aurkezteko aukera. Lehiaketak maila bi izango ditu aurten ere: 16 urtetik beherakoek (Eibar-ko ikasleak) bertso bat edo 2 kopia aurkeztuko dituzte, eta 16 urtetik gorakoek, berriz, 4 puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez (asko jota 10). Gaztetzoen kasuan irabazleak liburua eta txapela irabaziko ditu, bigarrenak liburua eta plaka. Nagusien mailako irabazleak 300 euro eta txapela eta bigarrenak, berriz, 250 euro eta plaka. Lanak azaroaren 8a baino lehen entregatu beharko dira ...eta kitto!



Euskara Elkartearen (Urkizu 11, solairuartea. 20600 Eibar). Gaia eta doinua libreak izango dira. Lanaren hiru kopia gaitzizena bidaliko dira eta beste orri batean, eta gutunazal itxian, gaitzizena identifikatzeko datuak (izen-abizenak, telefonoa eta adina). Irabazleak abenduaren 1ean, domeka, Portaleko areto nagusian egingo den San Andres bertso jaialdian jasoko dute saria.

Sendabelarren foroa astelehenean bueltan

Ikasturte berriari helduko diote astelehenean Sendabelarren Foroko kideek (16.00etan Portalean). Esperientzia Eskolako proiektu baten inguruan sortu zen sendabelarren inguruko talde hau 2005eko neguan eta gaur egun Ikasten Esperientzia Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak dauka bere gaineko ardura. Foroko kideak hilero batzen dira Portalean, lehen astelehenean, gure herrian eta inguruan dauden sendabelarren inguruan berba egiteko. Horri esker,

belar bakoitzaren ezaugarriak, erabilera eta bestelako berezitasunak ikasten joaten dira, bakoitzak dakiena besteei kontatuta. Sendabelarren inguruan gehiago ikasteko bileretan liburuak erabiltzen dituzte eta lantzean behin Eibar inguruan irteerak egiten dituzte, eskualdean hazten diren sendabelarren inguruko ezagutzan sakontzeko asmoz. Foroko partaideek gaian interesa dutenak astelehenean bilerera joatera animatu nahi dituzte.




Hileko lehen astelehenean batzen da foroa Portalean.

laburrak

SANANDRESAK

Aurtengo San Andres jaiak prestatzeko bilera deitu dute astelehenerako (hilaren 7rako), 19.00etan Portaleko ikastaro gelan (3. pisuan). Gaian interesa duten guztiak bertara agertzeko daude deituta.



SAGARRAFTER

Zapatutik domekara bitarteko goizaldean, 04.00etatik 08.30etara, Sagarrafter edo sagardo festaren osteko jaiak antolatu dute Eibarko gaztetzeari, parranda luzatu nahi duten guztientzat.

KILOMETROAK

Domekan Tolosan ospatuko den Kilometroak jaira joateko autobusak 09.30etan irtengo dira Toribio Etxebarria kaletik. Bueltan etortzeko autobusak, berriz, 19.00etan irtengo dira.


○ **Pazienteekin euskaraz jarduteko**

Aurten 30 urte bete dituen EAEko osasun zerbitzu publikoa kritikatu izan da maiz euskarari eman dion garrantziaren kontura. Hori dela-eta, 2005etik hona indarrean izan den euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko lehen planaren ebaluaketa egin da eta horko emaitzak erakusten dute Osakidetza, oraindik ere, bere zerbitzua bete-betean euskaraz ematek urruti dagoela. Hori dela-eta, pazienteekin euskaraz aritzea erraztuko duten gidaliburuak kale-ratu dituzte, alor desberdinetako elkarriketa, esamolde eta hitz ohikoak biltzen dituzten bost bertsiorekin.

euskararen txokoa

○ **Euskara Gipuzkoako Foru Aldundian**

Euskarak Ogasunean egin du gehien aurrera Gipuzkoan; eta gutxien, Gizarte Gaietan. Urtebete da aldundiak euskararen aldeko neurriak hartu zituela, eta erakunde gehiago batzeko ari da lanean. Zerbitzuak euskaraz emateko departamentu guztiek lanean jarraitzen dute, eta irudi korporatiboan, argitalpenean eta agerraldi edo ekitaldi publikoetan ere euskarari eman diote lehentasuna. Aldundiak neurriak hartu eta hila-bete gutxira, 36 udalek eta erakundek (tartean Eibarko Udala) bere egin zuten egitasmoa kontratazio publikoetan hizkuntza irizpideak ezartzeko asmoan.



Urrirako argazki erakusketak

Hilero lez, urrian ere hiru argazki erakusketa antolatu dituzte Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek herriko beste horrenbeste tabernatan. El Ambigu kafetegian Jose Miguel S. Jose Malagako argazkilaria lanak ikus daitezke, Portalea tabernan Eibarko Argazki Rally-ko argazki erakusketaren 2. parte ipini dute eta Deportibo tabernan, berriz, perretxikoen inguruko argazkiak daude ikusgai. Hiru erakusketak urriaren 31ra arte egongo dira martxan.



Txokolate-dastaketa Illunabarrian

Datorren urriaren 22rako, martitzena, ...eta kitto! Euskara Elkarteak txokolate-dastaketa antolatu du Illunabarrian programaren ba-

rriuan. Tolosako Rafa Gorrotxategi ospetsuaren eskutik ezagutu ahal izango ditugu txokolatearen sekretuak, arratsaldeko 19.00etatik aurrera ...eta kitto!-n bertan. Izen-ematea datorren astelehenean, urriak 7, irekiko da. Elkarteko bazkideek 4,50 euro ordaindu beharko dute, gainontzekoek, berriz, 5 euro. 15-16 bat lagunentzako egongo da lekua eta izena emateko epea urriaren 18an, barrixakua, amaituko da.



Rafa Gorrotxategi ospetsuak emango ditu ezagutzera txokolatearen ia sekretu guztiak.

Uxuera txangoa Kulturalarekin

Uxuera txangoa antolatu du Arrate Kultur Elkarteak urriaren 19rako (zapatua). Irteeran parte hartzea animatzen direnek, besteak beste Uxuen bisita gidatua egingo dute eta bazkaria San Martin de Unxen izango da. Autobusa 09.00etan irtengo da Ego Gaietik eta txangoaren prezioa, bidaia, bazkaria eta bisita gidatua barne 32 eurokoa da bazkideentzat (35 eurokoa bazkide ez direnentzat). Izena emateko Arrate Kultur Elkartearen bulegora zuzenean joan daiteke edo, nahiago iza-



nez gero, 943202299 telefono zenbakira deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

hildakoak

- Josefa Arias Vazquez. 76 urte. 2013-IX-23.
- M^a Concepcion Bellido Rodrigo. 100 urte. 2013-IX-27.
- Esperanza Garrobo Azkarate. 89 urte. 2013-IX-27.
- Patricio Puelles Bañares. 83 urte. 2013-IX-28.
- Antonia Iriondo Azpiaz. 100 urte. 2013-IX-28.
- Paulino Agirrebeña Osa. 82 urte. 2013-X-1.

jaiotakoak

- Irai Bastida Chinchilla. 2013-IX-24.
- Noa Lopez Amas. 2013-IX-26.
- Xabier Grande Lopez. 2013-IX-26.
- Koikilli Lizarralde Fernandez. 2013-IX-29.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MARKO Morquecho Hernandez, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa eguna, pirata!



Zorionak, AINHOA Unanue Thobie, etzi hiru urte egingo dozuz-eta. Zure izeba Ziortza, amama Begoña eta Iparraldekuen partez.



Zorionak, LEIRE. Heldu da zure 16. urtebetetzia. Ondo pasa, famelixaren partez.



Ongi etorri, KOIKILLI, eta zorionak aitaxo eta amatxori. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IKER!! Astelehenian 11 urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JONE, gaur hamar urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, astelehenian bost urte egingo dozuz-eta!!! Muxutxuak etxeko guztien eta, batez be, Joneren partez.



Zorionak, DANEL, atzo sei urte egin zenduazelako. Muxu asko famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MADDI, irailaren 29xan urtetxua egin zenduan-eta! Patxo haundi-haundixa famelixaren eta, batez be, Ekhiren partez.



Zorionak, MIREN, gaur hiru urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, AMAMA, gaur zure eguna dalako. Eta baita ANDER eta IBONERi be, gure bikotiari, bixar bederatzi urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, mutil haundixak, aste honetan urtiak bete dozuez-eta! Patxo haundixak etxekuen partez.



Zorionak, JAKES, hillaren 9xan bost urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat etxeko guztien eta, batez be, UNAXen partez.



Ongi etorri, NOA Lopez, irailaren 26tik gure artian zagoz-eta. Eta zorionak, ANER Lopez, gaur bi urte betetzen dozuzelako. Etxekuen eta, batez be, DANELen partez.



Zorionak, amama ROSA eta MARKEL (zortzi urte), gaur urtiak egitten dozuz-eta. Etxeko guztien partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
5ean: 19.45, 22.30
6an: 17.00, 20.00
7an: 20.30

"Lobezno Inmortal"


Zuzendaria: James Mangold



(2 ARETOAN)
5ean: 19.45, 22.30
6an: 17.00, 20.00
7an: 20.30

"Elysium"

Zuzendaria: Neill Blomkamp



(ANTZOKIAN)
5ean: 19.45, 22.30
6an: 20.00
7an: 20.30

"Las brujas de Zugarramurdi"

Zuzendaria: Alex de la Iglesia



(ANTZOKIAN)
6an: 17.00

"Epic, el mundo secreto"

Zuzendaria: Chris Wedge



BARIXAKUA 4

INDIANOKUA

16.30. Eskulana: boloak. Indianokua gaztelekuan.

JAM SESSION

23.00. Jam Session: Blues/Rock. Ez Dok tabernan.

ZAPATUA 5

HITZALDIA

10.00. "La influencia de la integracion sensorial en el desarrollo infantil", Judith Abelenda terapeutaren eskutik. Portalean.

1986-KOEN BAZKARIA

12.00. Batu eta poteoa hasi.

14.00. Talde argazkia (Untzagan).

14.30. Arratera bazkaltzera joateko autobusaren irteera (Ego-Gainetik).

15.00. Bazkaria Kantabria jatetxean.

19.30. Bueltarako autobusa.

SAGARDO EGUNA

12.00-14.30. Sagardo Eguna, Euskal Herriko Gorenak elkarteak 13 sagardotegietatik ekarritako sagardoarekin, pintxoak, musika...

19.00. Sagardo gutzia amaitu arte. Untzagan.

1958-KOEN BAZKARIA

12.45. Talde-argazkirako batzea. Untzagan.

Bazkaria Unzaga Plaza hotelean izango da.

EZKONTZA AZOKA

16.00. Mariatxia. Eszenatokian, estetizista batekin emaztegaiarentzat zuzeneko saioa.

19.00. Pintxoak eta ardo-dastaketa.

20.00. Desfilea.

21.00. Zozketa. Armeria Eskolan.

DANTZA

17.00. "Constelaciones" (Aracaladanza). Sarrera: 8 euro. Coliseoan.

INDIANOKUA

17.00. Eskulana: boloak. Indianokua gaztelekuan.

AGINAGAKO JAIK

17.00. Briska txapelketa.

17.30. Umeendako jolasak eta txokolate jana.

21.00. Lagunarteko afaria.

23.00. Erromeria, Kupela taldearekin. Goizaldean, txokolate jana. Agiñaga auzoan.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-ekoen kalejira, Untzagatik hasita

DOMEKA 6

SAGARRAFTER

04.00-08.30. Sagarrafter (sagardo festaren osteko jaia). Gaztetxean.

KILOMETROAK

09.30. Tolosara, Kilometroak jaira joateko autobusen irteera. Toribio Etxebarria kaletik. Bueltakoa 19.00etan.

EZKONTZA AZOKA

11.00-14.00. Umeendako jarduerak: umeendako moda desfilea, magoa eta gaztelu puzgarria.

16.00. Zuzeneko ileapaindegia emaztegaiarentzat.

19.00. Ezkongaiendako desfilea.

20.00. Pintxoak eta cava.

21.00. Zozketa. Armeria Eskolan.

INDIANOKUA

17.00. Play/Wii. Indianokua gaztelekuan.

ZINEA

17.30. "El alucinante mundo de Norman". El Corte Inglesean.

ASTELEHENA 7

IKASTEN

16.00. Sendabelarren Foroa. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

MARTITZENA 8

IKASTEN

17.00 eta 18.30. Joskintza tailerra. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19.00. Idazlearekin Harixa Emoten: Kirmen Uriberekin solasaldia, "Mussche" liburuaren inguruan. Juan San Martin liburutegian.

EGUAZTENA 9

TAILERRA

18.00. Zurrumurruei aurre egiteko tailerra, Xabier Aierdi (Begirune) soziologoaren eskutik. Portalean (ikastaro gelan).

ikastaroak

✓ Ikastaroak hasi baino astebete lehenagora arte

UEU.

- **On line:** "Geogebra aurreratua", "Krisia eta kudeaketa publikoa Euskal Herrian", "Kultura arteko hezkuntzaren garapena", "Moodle 2.3-ren oinarriko erabilera" eta "Ubuntu eta software libreria sarrera".

- **Markeskuan:** "Emozioak eta norberaren gaitasunak lantzen", "Eskola libre eta demokratikoak: gizarte aldaketarako tresna eta gako", "Isiltasuna gelan", "Jendaurreko komunikazioa" eta "Sormen-tailer aurreratua". Informazioa: www.ueu.org eta 943 82 14 26 telefonoan.

✓ Urritik abendura arte

JABETZE ESKOLAKO IKASTAROAK.

"Bellas a lo Bestia" (8 ordu). Urriaren 7ra arte. "Enredadas" (16 ordu). Urriaren 10era arte. "Autodefentsa Feminista" (12 ordu). Urriaren 28ra arte. "La risa como recurso" (8 ordu). Abenduaren 2ra arte. Izen-ematea: Andretxean edo Portalean.

HOROSKOPOA

ARIES

Eztarria hobeto zaindu beharko zenuke, azken aldian jende asko baitabil herrian gaixorik. Hala ere, sasoi onean zaude.

TAURUS

Inork ez zaitu ulertzen. Zergatik? Ez dakizu ondo azaltzen? Baliteke besteek ulertu nahi ez izatea, egiek min asko egiten dute-eta.

GEMINI

Zuk bakarrik egin ahal izango duzu hori, zure esku egongo da besteen zorianaren zatitxo bat. Erabaki egokia hartu, arren!

CANCER

Zuretzat denak berdin jarraitzen duela badirudi ere, ez da horrela. Poliki gauzak aldatzen joango dira; ohartuko zara.

LEO

Segi horrela. Gehiegi konplikatu gabe, gauzak ondo egin daitezkeela erakutsi duzu. Bide onean zaudela argi dago.

VIRGO

Eguzkitsu dagoenean alai, euriarekin triste; meteorologiaren arabera beti. Euriarekin irribarre egiten ikasi beharko!

LIBRA

Milaka kontu dituzu buruan eta horiei irtenbidea ematen saiatu beharko zara. Hasi pentsatzen, denborarik ez duzu-eta.

SCORPIUS

Momentu baketsuak biziko dituzu, azken asteetako zalapartatik kanpo. Arnasa sakon hartu eta erlaxatzeko sasoi duzu.

SAGITTARIUS

Ez pentsa dena betirako izango denik. Gauzak etengabe aldatzen: gaurko zuria bihar beltza daiteke. Egokitzea komeni!

CAPRICORNIUS

Pertsona bat faltan botako duzu eta nahiko triste egongo zara. Ez estutu larregi: ingurukoek lagunduko zaituzte.

AQUARIUS

Ez duzu jakingo noiz iritsiko den hainbeste denboran itxaron duzun une erabakigarri hori: ziur izan aste honetan izango dela.

PISCIS

Maila profesionalen sasoi ederra bizi duzu. Askorentzat erreferentea zara eta dakizun gutzia erakutsiko duzu. Animo!

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

✓ Urriaren 13ra arte

JOSE LUIS IRIGOIENEN "50 urte argazkigintzan eta gero hau! Euskal argazkilari baten lanak" erakusketa. *Portalean.*

✓ Urriaren 31ra arte

ELISABET EGURENEN margo erakusketa. *La Taberna de Luis-en (Isasi).*

JOSE MIGUEL SAN JOSEREN argazkiak. *El Ambigú kafetegian.*

MIKOLOGIARI buruzko argazkiak. *Klub Deportiboan.*

EIBARKO ARGAZKI RALLYKO lanen erakusketa (2. zatia). *Portalea tabernan.*

bekak / diru-laguntzak

✓ Urriaren 11ra arte

XI. JUAN SAN MARTIN BEKA. *Ikerketa esparrua: Kazetaritza. Bekaren zenbatekoa: 9.000 euro. Informazioa: Urriaren 11ra arte, Pegoran.*

✓ Urriaren 31ra arte

UMEAK ESKOLARA ETA DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI *Lanak aurkeztea: Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bulegoan (Untzaga Plaza, 7 - 3. behean). Informazioa: Pegoran.*

lehiaketak

✓ Urriaren 11ra arte

I. OJANGUREN XXVI. ARGAZKI LEHIAKETA *Lanak aurkeztea eta informazioa: Portalean.*

✓ Urriaren 15era arte

SANANDRESAK EIBARREN KARTEL LEHIAKETA *Lanak aurkeztea eta informazioa: Pegoran.*

✓ Azaroaren 8ra arte

XIX. SAN ANDRES BERTSO-PAPER LEHIAKETA. *Lanak aurkeztea eta informazioa: ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11)*

farmaziak

✓ barixakua 4

EGUNEZ **Las Heras Laramendi (Calbetón, 19)**
GAUEZ **Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)**

✓ zapatua 5

EGUNEZ **Mendinueta (Urkizu, 6)**
GAUEZ **Alberdi (Zubiaurre, 9)**

✓ domeka 6

EGUNEZ **Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)**
GAUEZ **Ibarrondo (Zeharkalea, 2)**

✓ astelehena 7

EGUNEZ **Zulueta (S. Agustin, 5)**
GAUEZ **Cortina (Zubiaurre, 29)**

✓ martitzena 8

EGUNEZ **Mandiola (S. Agustin, 3)**
GAUEZ **Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)**

✓ eguaztena 9

EGUNEZ **Urizar (J. Etxebarria, 7)**
GAUEZ **Urizar (J. Etxebarria, 7)**

✓ eguena 10

EGUNEZ **Azkue (T. Etxebarria, 4)**
GAUEZ **Azkue (T. Etxebarria, 4)**

✓ barixakua 11

EGUNEZ **Barandela (Z. Agirre, 4)**
GAUEZ **Barandela (Z. Agirre, 4)**

AURREKOAREN
EMAITZA

6	5	3	8	4	2	1	7	9
4	2	1	5	7	9	8	6	3
8	9	9	6	3	1	2	4	5
3	4	9	7	8	5	6	2	1
5	1	2	9	6	4	7	3	8
7	8	6	1	2	3	5	9	4
1	7	5	3	9	6	4	8	2
2	3	8	4	5	7	9	1	6
9	6	4	2	1	8	3	5	7

SUDOKUA

	3			8		7		
	7					1		9 3
4		2					8	
	5		8		3			
7				2				8
				1		5		7
		5					9	4
2	4		5				8	
		3		1			5	

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Jardinetan kalean. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. 95.000 euro. Tel. 605-703603.
– Babes Ofizialeko pisua salgai Eibar-ko erdialdean, Ardantza kalean. Logela bat, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Azkenengo pisua. Terraza handia. Eguzkitsua. Tel. 660-369141 eta 669-731791.

1.2. Errentan

– Logela hartuko nuke alokairuan Eibar edo inguruetan. Tel. 628-872295.
– Pisua hartuko nuke alokairuan. 2-3 logelekoa. Tel. 634-170819.
– Logela alokatzen dut Bidebarrieta kalean. Tel. 618-354218.
– Pisua alokagai Ipuruan. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Berogailua. Sartzeko moduan. Tel. 696-045050.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar-ko erdialdean. 2-3 logela. Tel. 618-354218.
– Buhardila txikia alokagai. Txukuna eta zentrikoa. Iggailuarekin. Prezio interesgarria. Tel. 656-759593.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala erosiko nuke (50 metrokoa edo handiagoa) Eibar edo inguruan. Ura, elektrizitatea eta bainuarekin (jartzeko aukerarekin). Kontutan izango da terenoa, eskaparetea eta bizigarritasuna. Merke. Tel. 665-732640.
– Harategi-urdaitegia salgai Deban, jubilazio dela-eta. Martxa betean, bezero partikular eta enpresekin. Lanean jarduteko makinarria guztiarekin. Oso errentagarria. Aukera bikaina. Tel. 943-191214 eta 943-192546. goizgali@yahoo.es

3.2. Errentan

– Lokala alokagai Egiguntarren plazan. Gazteentzat aproposa. Prezio onean. Deitu eguerdian. Tel. 943-701394.
– Lokala alokagai Pagaegi kalean. 65 m² eta 4'5 metroko altuera. Negoziorako aproposa. 375 euro hilean, gastuak aparte. Apartakalea alboan. Aukera ona! Tel. 600-946854.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 669-311385.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 686-052084.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Mutila eskaintzen da hainbat arlotako mantenimendu lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 677-860971.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 632-956548.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-054894.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 679-946934.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 943-254903.
– Neska euskalduna eskaintzen da ile-apaindegi batean lan egiteko. 12 urteko esperientzia. Tel. 610-096417. Nerea.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 632-035709.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 662-012834.
– Neska eskaintzen da etxeak eta pegorak garbitzeko. Tel. 628-872295.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. 3 urteko esperientzia. Tel. 943-530679 eta 633-781038.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Etxean edo ospitalean. Tel. 686-265293.
– Mutila eskaintzen da mekanikari jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 634-851205.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldean laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 687-610998.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653-075865.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.
– Irakasle ikasketetako 4. mailako ikaslea eskaintzen da goizetan haurrak esnatu, gosaria eman eta eskolara eramateko. Tel. 634-430647.
– Neska arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 636-423493.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 672-076852.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 600-332954.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. 15 urteko esperientzia. Tel. 680-463892.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 659-731324.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabalak. Esperientzia. Tel. 628-188028.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 648-180233.
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 685-776778.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 696-802587.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 607-396018.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 665-071463.
– Neska eskaintzen da arratsaldetan etxeak, pegorak edo bulegoak garbitzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 645-461600. Arrate.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 672-834167.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera edo sukaldari jarduteko jate-txean zein hoteletan. Tel. 606-354982.
– Emakumea eskaintzen da gozogle edo okin moduan eta kamarera edo saltzaile jarduteko. Tel. 622-654862.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Jornada erdirako. Tel. 680-121252.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Edozein ordutan. Tel. 657-156254.

4.2. Langile bila

– Pertsona arduratsua behar da raxtak, luzapenak eta postizoak egiteko Eibarko ileapaindegi batean. Giro ona. Tel. 678-674250.
– Emakumea behar da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-529935.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Mutil euskaldun tituludunak ingelesezko partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Merke. Tel. 690-025579.
– Arkitekto euskalduna eskaintzen da DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasgai tekniko-zientifikoak emateko. Esperientzia. Tel. 615-704540.
– Ekonomiketan lizentziatua eskaintzen da Matematikak, Kontabilitatea eta Finantza-Matematiketako partikularrak emateko. Tel. 657-771496.
– Ingeniaritza tituludunak klase partikularrak ematen ditu. LHtik Batxilergora arte, Heziketa Zikloak eta unibertsitatekoak. Talde txikiak. Tel. 669-622642. Mireia.
– LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. Tel. 685-739709.
– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestaketa. EOI. Tel. 670-793312.
– Azken kurtsoko Pedagogiako ikasle euskalduna eskaintzen da klase partikularrak eta ikasketa-teknikak emateko. Tel. 676894791.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bugaboo markako aulkia errendako patinetea erosiko nuke. Tel. 666-769414.
– Zuhaitz itxurako zintzilario dekoratiboa salgai. Prezioa adosteko. Tel. 660-840246.
– Idazmahaia salgai. Poliplusa, mahai-gaineko lanpara eta osagarriekin. Erabili gabe. Merke. Tel. 943-120308.
– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.
– Gitarra klasiko "espainiarra" salgai. Tel. 649-258913.

6.2. Eman

– Txakurkumeak oparitzen dira. Tel. 685-739709.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Bi zintzilario galdu nituen orain dela hamar bat egun: bata eskorpioiarekin eta bestea aingura, gurutzea eta bihotzarekin. Tel. 943-702247.

6.4. Bestelakoak

Taxi-lizentzia salgai. Ibilgailu eta bezero-karterarekin. Atenditzeko modurik ez izateagatik. Tel. 630-884181.

Alemana, frantsesa, ingelesa, italiera eta txinera

Ordutegi bereziak!

- Talde murriztuak mailaka.
- Komunikazio klaseak.
- 2 egun astean. (astelehena eta asteazkena edo asteartea eta osteguna.)
- 3 ordu astean. (Goizez eta arratsaldez)

2013-2014 kurtsoa urriaren 1ean hasiko da eta ekainaren 20an bukatuko da

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegiak

9 4 3 7 4 4 0 4 0
w w w . i l s . e s

ILS



**URRIAN, ZURE EROSKETEKIN,
ZOSKETA HANDIAK
MERKATU PLAZAN**

**URRIAK 5-12-19: BI LAGUNENDAKO SPA
ZIRKUITUA DEBAKO KRESALA HOTELEAN**

**URRIAK 26: OTARRA MERKATU PLAZAKO
PRODUKTUEKIN**

EIBARKO UDALA

EIBAR
CENTRO COMERCIAL ABIERTO
MERKATARITZA GUNE IRERU

Asko dira gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 innovadental
clínicas



Createch Medical-en
etorkizuna gerturaten dizugu,
inplanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

 **bista eder**
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

 **innovadental** [**Azpeitia**]
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com